




VII GAIA: HONA HEMEN NIRE FAMILIA


Hurrekin familiari buruz hitz egiten hasiko gara. «Denok daukagu familia bat, handia edo txikia. Familia oso garrantzitsua da. Familiarik ez bagenu, triste geundeke, bakarrik...». Liburuak hartu eta 32. orrialdean irekiko ditugu. Haur bakoitzak azal dezala zer familia muntatu duen.

«Zer gustatzen zaizue gehien zuen familiarekin egitea?».

«Baina kristauok beste familia handiago bat ere osatzen dugu. Badakizue zein? Jainkoaren seme-alaben familia. Familia handi horretan, anai-arrebak gara guztiok, eta Jesus da gure anaia nagusia».

Familia handi hori lore modura irudikatuko dugu. Erdiko zirkuluan AITA jarriko dugu. Haur bakoitzari petalo bat emango diogu, margotzeko eta erdian bere izena idazteko. Lorea kartoi mehean muntatu, eta kortxoan jarriko dugu.





VIII. GAIA.- JADA HANDIA NAIZ

Jainkoak sortutako izaki batzuk hazi egiten dira, eta beste batzuk ez (adibideak jarri). Dena den, izaki guztien artean, gizakiak gara fisikoki, soziologikoki eta espiritualki hazten diren bakarrak.

Tamainaren aldetik handitu egiten gara, baina, horrez gain, gauza asko ikasten ditugu: oinez ibiltzen, hitz egiten, irakurtzen, jolasten, kontatzen, igeri egiten, patinetan ibiltzen... Eta, gainera, ongia egiten ikasten dugu, besteei laguntzen, otoitz egiten...

Aitaren egiten erakutsiko diegu haurrei, batzuek agian ez baitute jakingo nola egiten den.

Margotzeko orria emango diegu.






OHARRA: Urtarrilaren 30ean JUSTIZIA ETA BAKEAREN EGUNA ospatzeu da.



Aldi berean gertatzen bada horma-irudia prestatuko dugu, erdian eta letra larriekin BAKEA idatziko dugu. Umeak norberaren usoa margotzen duten bitartean, euren esku dauden bakearen aldeko ekintzak aipatuko ditugu, esana egin, hitz itsusirik ez esan, ez eztabaidatu, gela jaso, inor ez baztertu...

Usoak bakea hitzaren inguruan itsatsiko ditugu.

Bukatzeke, liburuak eta estutxeak jaso, eta Jainkoari hitz batzuk zuzenduko dizkiogu. Kandela bat piztuko dugu. Katekista esaldiz esaldi joango da; esaldi bat esaten duen bakoitzean, haurrek errepikatu egingo dute.

CURUTZEAREN SEMALEA

 <p>Aitarean</p>	 <p>Semearen</p>	 <p>eta Espiritu</p>	 <p>Amaren Semea</p>	 <p>AMEN</p>
--	---	--	--	--





FAMILIAREN ALDE (*)

Zuk, Jesus,
mundura etorri zinenean,
familia batean bizi nahi izan zenuen gu bezala.
Bedeinka ezazu gure familia,
denok elkar maitatuz bizi gaitezen.
Bedeinkatu munduko familia guztiak,
eta egizu
lurrean bizi garen guztiok
egiaz familia bat izan gaitezela.

(*) Katekistak esaldi bat esaten duen bakoitzean, haurrek errepikatu egingo dute.